

...eta

Kitto!

867 zkia.
2013-XI-22



Asteburu gASTRONOMIKOAre aurrean

R.P.S. Nº 149/10 LLG

Gure betaurreko
guztiak
azken
bildumakoak dira



ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

ZURE BIGARREN

VARILUX[®]
LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



LANTALDE PROFESIONAL

TELEFONO BIDEZKO ARRETA



ZERBITZU INTEGRALA

BIKAINA, IZEN-ABIZENEKIN

URGENTZIAK
24 ORDUTAN,
688 608 142

Urgentzietako Kostu Gehigarria.



ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara
zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara

ETXEZ-ETXEKO
ARRETA-ZERBITZUA

Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU!



ESKANTZA
BEREZIAK

Jarraitu urte osoan gure
sasoian-sasoiko
promozioak.

Abantaila ekonomiko
handiak eta bestelako
aukera odontologikoak.

Aprobetxatu!

AKREDITAZIOAK

Antonio Murillo Doktorea

Hezur Birsortuntza
eta Ehun Bigunen Maneiuko
Zuzendaria.

Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.

Periodontzia Koordinatzailea,
Odontologian Lizentziatua.

Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.

Inplantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.

Unibertsitate Institutuzietako Irakasle
gonbidatua

Madrilgo Unibertsitate Konplutensean,
Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan,
eta Sevilla, Bartzelona, Almeria, Lleida,
Malaga... Unibertsitateetan.

Ainhoa Zulueta Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.

Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian.
Leongo Unibertsitatea.

Aho Kirurgian Diplomatu.
Bartzelonako Unibertsitatea.

Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutesean.

Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso doktorea.

MUTUA ETA ASEGUROAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL,
CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA,
AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

...**GALDETU!**



IRAZABAL

clínica dental Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Umei ez zaie esan behar hildakoa zerura joan dela: hobe da esatea hil egin dela, arnasteari laga diola eta ez dela itzuliko. Kontrakoa esanda, bueltatuko den itxaropena pizten dizkiezu. Hobe da egia esan eta galderei zuzen erantzutea"

(TXENA ORMAZABAL, IRAKASLEA)

"Espainia da Europar Batasunean emakume gehien dituen itsasoko arrantza sektorean. Hala ere, arrantzan bakarrik %3,3 dabil. Lehorrean, bestalde, %95 osatzen dute eta gehienak itsaski-bilketan eta kontserba-industrian dihardute. Akuikultura egiten du lan %27ak"

(AEDINAR ITSAS ELKARTEA)

"Emakume etorkinek pentsatzen dute hemengo emakumeek euren bizkar dihardutela beren karrera profesionalak garatzen. Euredako frustrantea da egiten duten lana ez aitortzea, batez ere zaintza lana oso gutxietsita jarraitzen dagoelako"

(PEPA BOJO, PSIKOLOGOA)

"Sasoi batean musika atsegin ez izatea basakeriatzat hartzen bazen ere, lotsak astinduta datoz musika borroeroak. Pianoa jotzen zuen bati zazpi urteko espetxe zigorra eskatzen diote kutsadura akustikoa egotziz"

(GOIZALDE LANBASO, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JUAN.- Pasatu. "Ura juan eta gero presia egin".

JUAN ETA ETORRI.- Gaztelera 'ida y vuelta'. "Elixakua eruan zetzezenian, juan da etorriko billetia eskatu zetsan abadiari".

JUAN HARI ZERURA ORTOZIK.- Joan pikutara.

eskutitzak

BOST AULKIREN GORABEHERAN

Aurreko astean, gure auzoko jaiak pasa eta ia bi hila-betera, Udalaren gutuna jaso genuen jarritako fidantzatik 75 euro kenduko zizkigutela esanez. Bost aulki "desperfektoekin" bueltatu omen genituen eta bakoitzak 15 euroko kostoa izanik...

Aulkiak aulki eta kontuak kontu, ez goaz orain guk puskatu genituen ala ez etzabaida antzuan sartzera. Baina gaiari buruzko hausnarketa egitea komeni dela uste dugu. Bi atal desberdinetatik helduko diogu gaiari. Hona gure iritzia: **Batetik**, udalak horrelakoetarako daukan materialari buruzko azalpentxoak. **Mahaitzat erabiltzen diren oholak** benetan baldintza penagarrietan daude. Astunak eta deserosoak izateaz gain, apurtuta daude ertz askotan, ezpalez, ultzaz eta grapaz beteta. Eta zikinak, oso zikinak. Berdin ohol horiek eusteko baldintzen dituzten zalditxoak, ugertuta eta zikin. **Bestalde**, aipamen berezia merezi dute tortilla txapelketarako **laga zizkiguten suak**. Haiek ipintzen ari ginela, ia pegatuta geratu ginen bertan. Higuinaria: koipea eta zikina pentsaezineko moduan. Erabili egiten dira dirudienez, garbitu, berriez, ez.

Kontua da, baldintza horretan materiala jaso, eta bost aulki guk apurtu ditugula diotela. Baina gure ustez ez da hori larriena: gure ikuspuntutik, udalak duen materiala herriarena da eta eragile desberdinek erabiltze-

ko aukera izan behar da beti. Eta, jakina, gauzak erabiliz apurtu egiten dira batzuetan. Egia da, bai, denona den material horrekin kontuz ibili beharra dagoela eta ahalik eta egokien zaindu. Baina, bene-benetan, hori egin genuen. Gu ez ginen ibili aulkiak eskaileretan behera botatzen: materiala zaindu eta bueltan bidali genuen. Behar bada, gure auzoko jaietan apurtuko ziren bost aulki horiek; inork ezin du ziurtatu hori horrela izan ez zenik. Aulkiak udaleko biltegietan egon izan balira, ez ziren apurtuko; baina horretarako nahi ditugu?

Gure auzoan, herriko beste hainbat toki eta elkartet bezala, lan handia egiten dugu urtean behin jaitxo bat egiteko. Diruz, berriez, ez digu udalak larregi laguntzen (1.000 euroko dirulaguntza ematen digu) eta asko kostata lortzen dugu jaiak antolatzeke behar dugun dirua. Kontuak kontu, ez da diruarena gehien kezkatzen gaituena. Gure ustez, filosofia bat dago 75 euro horien atzean. Herriarena dena herriak erabili behar du. Erabili eta zaindu, jakina, baina erabilpenak horrelako ondorioak izaten ditu.

Udalaren biltegietan gordetako materiala usteldu egingo da, baina apurtu inoiz ez. Guk, berriez, behar bada, datorren urtean ere aulkiren batzuk puska ditzakegu, baina auzokideei jaiak eskainiz.

ARRAJOLAPE KULTUR ELKARTEA (LEGARREKO JAI BATZORDEA)

OHARRA: Abenduaren 5ean (6a jaieguna da) kaleratuko dugun alea berezia izango da, 25 urte betetzen dugula-eta horren inguruko monografikoa. Horregatik, zorion atalerako edo beste edozertarako informazioa bidali nahi izanez gero, datorren asteko alea erabili ahal izango duzue horretarako. Sanandresetako ale hori egun bat lehenago kaleratuko dugu: hilaren 28an, eguenean. Informazioa, beraz, martitzenerako bidali beharko diguzue.



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Eibartar ekintzaillen inguruko lehiaketia martxan

Udalak eta liburutegixak "Eibartar ekintzaileak gure kaleetan" lehiaketia ipiñi dabe martxan. Iaz lehelengoz antolatu zan lehiaketia, Toribio Etxebarria eibartarraren figura eza-gutzera emoteko asmuakin eta aurten XIX. mendian jaixotako ekintzaile eibartarren inguruko galderak erantzun biharko dira parte hartzeko. Hiru astantan, aste bakotxian galdera bi egingo dittue mailla bakotxerako (umien maillan 12 urtera artekuak sartuko dira eta bestian hortik gorakuak) eta sarixak kultura bonuak eta libu-

ruak izango dira. Aste honetarako aukeratu daben persona-jia Bittor Sarasketa da eta hel-duak galdera hóneri erantzun biharko detse: zeintzuk izan ziran Bittor Sarasketaren bazkidiak enpresia sortu ebanian? (Crispin Garate eta Juan Jose Larrañaga; Francisco Cortaberria eta Jose Uribar; ala Bonifacio eta Julian Echeverria) eta 1897 urtian zeñi erakusketatan lortu eban sarixa? (Exposición Regional de San Sebastian izenekuan; Exposición Armera de Madrid izenekuan; ala Exposición de Bue-

nos Aires izenekuan). Eta umiendako galderak beste hónek: zeñi erregerendako egi-tten zittuan Bittor Sarasketak eskopetak? (Juan Carlos I; Alfonso XIII; ala Mohamed V) eta Bittor Sarasketa Mandiola au-zoko basarri batian jaixo zan, zein zan basarri horren izena? (Katalangua; Sosola; ala Azpiri). Galderak ...eta kitto!-n bit-tartez zabalduko dira eta, hor-rez gain, www.eibar.net, www.eibarko-euskara.com eta liburutegiko blogetan be es-ukuragari ipiñiko dittue. Aste bakotxeko irabazliak eta bes-



telako azalpenak be helbide hórretan topauko dittuzue. Galdera-orrixa betetzian libu-rutegixan entregau bihar dira, lehiaketarako apropos ipiñi-ttako kutxan.



1937xan jaixotakuen jaixa

Erretratuan ikusten dittuzuenak 1937xan jaixotakuak dira eta, urtero lez, aurreko asteko barixakuan alkartu ziran, egu-na jai giruan pasau eta alkarrekin bazkaltzeko. Egun osuan eurixa egiñ arren, suertia izan eben, taldia Untzagan batu eta erretratua egiitkeko orduan atertu eban-eta.



Galiziako enpanadak parkian

As Burgas Galiziako Etxekuak aurreko domekan ospatu eben laugarrenez Enpanada Jaixa. Egun osuan enpanada zatixak eta Galiziako ardaia saltzeko tabernia zabalik egon zan Urkizuko parkian eta eguardixan lehiaketarako enpanadak epaimahaikueri probatzera emon eta, jarraixan, oneneri sarixak banatu zetsazen.

80 urtekuen bazkarixa

1933an jaixotakuak aurreko asteburuan, zapa-tuan batu ziran bazkarixa egiitke. Udaletxe barruko eskillaretan erretratua egiñ eta txiki-teuan ibilli eta gero, Unzaga Plaza hotelian bapo bazkaldu eta dantzaz jardun eben, Agirrek eskindutako musikaren erritmora.



Enpanada oneneri sarixa emon zetsen. LEIRE ITURBE



Gaur ixotuko dittue Gabonetako argixak

Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Udalak 48.400 euro pagauko dittue gaurtik hasitta Errege eguna pasau arte ixotuko diran Gabonetako argixekin kaliak apaintze-ko. Herriko kalietan ipiñittako ehun bat motibuak gaur 19.00etan ixotuko dittue eta, horretarako, ekitaldi berezixa egingo dabe anbulatorixo parian. Bestiak beste Eibar foball taldeko jokalarari batzuk egongo dirala aurreratu dabe eta, egurdixak horretarako aukeria laga ezker, bi panpiñ erraldoi kalia gozokixak banatzen ibilliko dira. Horrekin batera, EMGI-



ko dendetan bazkidieri gozokixak emongo detsez eta tabernetan cava kopia 1'6 eurotan edateko aukeria egongo da.

Energiari buruzko jardunaldixak

Astelehen, martitzen eta eguaztenian Eibar-ko Ingeniaritza Eskolan energixaren inguru-ko jardunaldixak egingo dittue. Astelehenian Aitor Urrestik erregai fosilen mugen in-

guruan jardungo dau 15.30xetik aurrera eta 16.45ian Pedro Ugartek planetaren muga fisikuk azalduko dittu. Martitzenian Roberto Bermejok transiziño energetikuari buruzko hitzaldixa emongo dau eta jarraixan Mikel Oterok gatazka energetikuaz jardungo dau berbetan. Eta eguaztenian Tomas Tamayok "Kode ireki-ko filosofixia" izenburukua emongo dau eta Eduardo Urturik "Energixa berdiaren komertzializaziñorako kooperatibia" izenburukuarekin itxiko dau programia. Unibersidade labo-raleko aretuan izango dira hitzaldixak eta aretua bete arte sarrera libria izango da.



autuan

ELIKAGAI-BILKETIA

Abenduaren 20ra arte Elikagai Bankuari emoteko jatekuak batuko dittue Batzoki tabernan (Ego Gain kalia). Famelixak askok laguntasun premiña haundixa dake eta, horregaittik, EAJ alderdixak eibartarrerri laguntasuna emoteko eskatu nahi detse, alde zurretik eskerrak emonda.



ERREBALGO PROIEKTUA

Atzo arratsaldian presentau zittuen Portalean Errebalen erabillerak zihazteko hainbat herritarren parte-hartzia izan daben prozesuaren emaitzak eta, horrekin, prozesua amaitutzat emon dabe. Edozelan be, gaur arratsaldian prozesua koordinatzen jardun daben lantaldia Portalean egongo da, prozesuaren fase guztiak eta emaitzak laburbiltzen dittuan txostena konsultau nahi dabeneri azalpenak emoteko prest. Horrekin batera, kezkek eta zalantzak argitzeko aukeria egongo da.



Funeraria Ehorzetzeta
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

ESPERIENTZIAK

EMATEN DUEN KONFIANTZA

30 urte
Eibarko
bizilagun-
erkidegoekin
konprometitua



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



EUKI
zerbitzu inmobiliariak



EIBAR

www.euki.com

Tel: 943 200 358

asteko
1.500
datua

1.500 metroko azaleria eukiko dau San Andres eguneko azokiak eta 72 postu egongo dira Untzaga eta Txaltza Zelai artian banatuta. Eibarko 12 baserrik Errebalen ganauak erakutsiko ditue. Bestalde, jaixaren inguruan 19 jarduera antolatu dira.



Fracking-az berbetan

Eibarren Fracking Ez taldiak antolatuta eguaztenian "fracking" edo haustura hidraulikuen inguruko azalpenak emon zittuan Aitor Urresti EHU-ko Eibarko Ingeniaritza Eskolako irakasliak Portalean. Presiño haundixa daken likiduak lurreko kapa edo geruzak apurtziari deitzen jako "fracking" eta aste honetako hitzaldixan fenomenuak eraginda zelako ondorixuak egon leikiazen esplikau zittuen.

Indarkeria matxistaren kontra

Astelehena, hillaren 25a, indarkeria matxistaren kontrako eguna dala-eta, 10.00etatik aurrera indarkeria matxistaren kontrako karpak ipiñiko ditue Untzagan andrazkuen alkartekuak, informaziñua eta bestelakuak banatzeko. Aurten "Indarkeria matxistaren aurrean, jabetu!" goiburuko pankartia zabalduko dabe 13.00ian egingo dan alkarretartzian eta arratsaldian, 18.00etatik aurrera Eibar Beldur Barik jaialdixa egingo da Portalean: Pailaztana Klown

Taldiak "La cenicienta que no queria comer perdices" eskindu eta gero, Beldur Barik lehiaketara eibartarrak aurkeztu dituen bideuak aurkeztu eta Eibar maillako sarixak banatuko ditue. Ediziño honetan gure herriko bost lan lehiatuko dira: "Eibarko Gazteak ere Beldur barik" (Ainhua Azkue, Elene Gisasola, Elene Varela, Lore Garrikagoitia eta Malen Txurruka),



"Eta zuk?" (Miren Oteiza, Irati Arriola eta Gara-zi Urzuriaga), "Zu zeu" (Amaia Otaola), "Nombres" (Ainhua Bolinaga, Ainitze Bolinaga, Ane Azkue, Jone Barandika, Lorea Victoriano, Lucia Agirregomezkorta, Maialen Zubizarreta, Maider Carrasco, Marina Kruzelaegi, Marta Prol eta Nerea Lodosa) eta "Apurtu eguneroko menua" (Laura Fernandez).

Eibar dastatzeko aitzakixa

Aurreko asteburuan, zapatuan eta domekan, Cadena Ser irratixak antolatutako "Eibar Degusta" hartu eban Untzagako karpak. Egun bixetan irratsaio berezixak bertatik zuzenian emi-

tidu zittuen Eibarko emisorako kazetarixak. Untzagara gerturatu zan jendiak, barriz, hainbat tabernak eskindutako pintxo berezixak eta ar dauak dastatzeko aukeria euki eban eta, gaiñera, Mendaroko txokolatia eta beste produkto batzuk salgai ipiñi zittuen.



Oberena harategikoek euren produktuak erakutsi zituzten karpak. LEIRE ITURBE



LABeko ordezkariak Hernanin

LAB sindikatuak Gipuzkoako metaleko delegauek batzara egiñ eban Hernanin aurreko asteko eguenian. Herrialde maillako metalgintzako hitzarmenaren inguruko gogoeta egiñ eta gero, proposamenak aurkeztu jarraitzia erabagi eben, adostasuna lortzeko asmuarekin. Horrekin batera azaruaren 26 eta 28rako eta abenduko lehen hamabostaldirako mobilizaziñuak iragarri ditue.





Nicolas Morillo eta Gaizka Abarrategi Armeria Eskolako irakasleek abendutik uztaile arte iraungo duen ikastaroa eskainiko dute. Berria izateaz gain, berezia ere bada ikastaro hori, lehen aldiz energia alorrerako tresna elektronikoen garapenerako teknikariak sortuko baitira 580 orduko ikastarotik. Merkatuak eskatzen duenari erantzuten diote.

NICOLAS MORILLO eta GAIZKA ABARRATEGI

“Elektronika, balio erantsia izateaz gain, etorkizuna da”

- Energia Sektorerako Ekipamendu Elektronikoen Garapenerako Teknikaria: ez da izen makala. Titulu berria sortzeko bidean?

Horrelako zeozer eta, batez ere, nabaritu dugun beharrei erantzuteko modu egokiena. Ikastaro berezia izango da, berria izateaz aparte. LHn badira arlo batzuk lantzen ez direnak eta elektronikarena da espezializazio gutxienetakoa duena, ez da-eta ikasketa orokorra. Unibertsitate ikasketetan egiten diren Masterren parekoa izango litzateke Lanbide Heziketako hau: LHn orain arte ez dago halakorik, Graduondokoak izaten dira gehienak.

- Noiztik nabaritu duzue hutsune hori LHko ikasketetan? Zelan animatu zarete?

2011-12 ikasturtean Positronikaren inguruan burututako proiektuan hainbat datu ondorioztatu genituen, horien artean hainbat teknologiarekin zerikusia duten kualifikazioetan. Gaur egungo garapenean ez dira aurkitzen teknologia horiekin zerikusia duten ekipamenduen ekoizpenari buruzko erreferentziak. Horko gabezia garrantzitsutzat jotzen dugu, kontuan izanda sektorearen enpleguaren %48 darabilela. Beraz, azken bi urteak eman ditugu hau aurrera eramateko baliabideen bila.

- Zuen susmoak egiaztatzeraz etorri da, gainera, Acicæ automoziorako clusterrean izan duzuen bizipena, ezta? Bide zuzenean zozate, beraz.

Automoziorako elektronikaren merkatuari dagokionez, gero eta indar handiagoa du: 2030erako auto baten koste osoaren %90ekoa izango da elektronikaren kostea.

Eta, gaur egun sektorean Euskadin fakturatzten dena kontuan hartuta, elektronikaren pisua %6koa da; elektronikaren beraren pisu potentziala %27an dagoenean. Hemenetik gutxira enpresek elektronikaren alde egingo dutela ondorioztatzen da, batez ere horrek eskaintzen duen balio erantsiari esker, bezeroak eskatzen duena eta merkatuaren kompetentzia ahaztu gabe.

- Esaten duzueenez, gaur egun elektronikak duen pisua ez da ikusten Hezkuntza munituan. Dena mekanikari dago zuzenduta?

Hori da. Azken urteotan beste dinamika batean gaude eta elektronikak ikaragarriko pisua hartu du, mekanikari espazioa kenduz. Hezkuntzan ez da tratatzen elektronika behar den moduan: mantenimendu elektronikoa hartzen da kontuan ia bakarrik. Enpresek ere behar dutenean bakarrik eskatzen dituzte halakoak. Orain arte elektronika Txinan landu da batez ere, baina gero arazoak izaten dira hango materialarekin.

- Zelako helburuak ezarri dizkiozue zuen buruari? Noraino heldu nahiko zenukete?

Kompetentziak lortzea energia sektoreko ekipamendu elektronikoen garaipenean eta diseinu errezetan nahiko genuke. Ikastaroa Elektronikan, Erregulazio eta kontrol sistema automatikoetan edo antzeko espezialitateetan LHko Goi Mailako Teknikariei eta Ingeniari Teknikoei dago zuzenduta.

“Abenduaren 16tik uztailearen 11ra arte iraungo du; 580 ordu izango dira guztira”

- Eskaintako tituluak zein lanposturako kualifikatuko luke parte-hartzailea?

Erdi mailako lanposturako, enpresa batenko Ingeniaritza eta Produksioa bitartekoa. Orain arte ez da formakuntza nahikoa eskaintzen arlo horretako goi mailako teknikariak sortzeko. Enpresetako ordezkariekin ere izan gara eta gurekin bat egiten dute hainbat seminariotan egiaztatu dugunez. Teknologiari ematen diogu guk garrantzia, gero arlo desberdinetan landu daitekeenari: segurtasuna, mugikortasuna... denetara, guztietan teknologia berdinak erabiltzen dira-eta. Energiaren inguruan dihardugunean, energia ekoizpena, energia-eraginkortasuna eta konfortari buruz ari gara.

- Noiz hasiko duzue ikastaroa? Zein ezauzgarri izango ditu?

Abenduaren 16tik uztailearen 11ra arte iraungo du eta 580 ordu emango dira. Hamabi laguntzat izango da eta eskertuko genuke benetan interesatutakoek parte hartzea. Horretarako, dena dela, hainbat proba egingo zaie aurretik. Ez da ahaztu behar egunero 15.30etatik 21.00etara izango direla klase teoriko-praktikoak eta horrek dedikazioa eskatzen duela. Batez ere, langabetuei edo ebentualei dago zuzenduta eta LHko goi mailako teknikariak izatea eskatzen zaie, bai Elektrizitate Elektronikoan edo Ingeniaritzan. Bertako aplikazioak energia-eraginkortasunean, automobilen, berriztagarrietan, txartelen eta tresna elektronikoen fabrikazioan eta diseinuan... hainbat arlotan nabaritu daitezke. Eta sektorean %47ko enplegua du.



ESKUMUTURREKO
BOLATXO BELTZA:
21 euro



LAUBURU KARRATUA
BELARRITAKOAK:
5,20 euro



EGUZKILORE BELARRITAKOAK:
18 euro



INTXAURRAK HAUSTEKOAK:
11,70 euro



KUTXAK (LAUBURU):
txikia 2,50 euro
ertaina 3 euro
handia 7 euro



ESKUMUTURREKO
EGUZKILORE LARRUA:
44 euro



LAUBURU OBALOA
BELARRITAKOAK:
5,20 euro



GILTZAK ZINTZILIKATZEKOAK:
10,60 euro



EGURREZKO EGUZKILOREA:
16 euro



ZUREZKO HAUTSONTZIA:
9,30 euro



EZ DA POSIBLE KAMISETA:
18 euro



UMIENDAKO ESAIT
KAMISETA:
20 euro



UMIENDAKO ESAIT
KAMISETA:
20 euro



EURITAKOAK:
11,70 euro



EUSKERAZ BIZI NAHI
DUT KAMISETA:
10 euro

NESKAK:
S, M, L
MUTILAK:
S, M, L, XL



BURDINEZKO MAHAI GAIKEKO
LAUBURU TXIKIA:
8,25 euro



BURDINEZKO MAHAI GAIKEKO
LAUBURU HANDIA:
11,50 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN bulegoan (Urkizu, 11)
ASTELEHENETIK BARIKAKURA 10.00-13.00/16.30-19.30

**IKUSI,
AUKERATU eta
EGIN ENKARGUA!**



KITTO-AMANTALA:
10 euro



PARETAN JARTZEKOAK: 6 euro

KITTO-AMANTALA:
15 euro



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

ARBOLARAKO
OLENZERO:
3,75 euro



...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU



Euskara Elkartearen




KARRIKIRI
IRUÑEKO EUSKALDUNON ELKARTEA



ALTXATU: 10 euro



BIDE ERTZEAN: 15 euro



MIKEL LABOA: XORIEK: 16,70 euro



MIKEL LABOA: GERNIKA: 16,70 euro




NAPOKA IRIA: 15,55 euro



RUPER ORDORIKA: 16,70 euro



SU TA GAR: 15 euro



JAIOBERRIAREN LIBURUA: 24,50 euro



KUADERNO
OHARRAK
LAUBURU:
6 euro



KUADERNO
LAUBURU
TXIKI:
8 euro



KUADERNO
HELBIDEAK:
8 euro



ARGAZKIRAKO
ALBUMA:
txikia 12 euro
handia 18 euro

DISKO,
DVD ETA
LIBURUAK



ARGIA TAKOA:
9 euro

EUSKARRIA:
5 euro



ANE LOPEZ ETA IGOR BILBAO:
Aire Libreko Pintura Lehiaketako irabazleak

"Naturaletik margotzea zaila da"

Eibarko Artisten Elkarteak antolatutako XXXVI. Aire Zabaleko Pintura lehiaketan 54 artistak jardun zuten euripear margotzen. Helduen mailan epaimahaiak banatutako sariak Eibartik kanpora joan ziren, baina beste mailetan herriko gazteak nagusitu ziren: 12 urtera arteko mailan, Malen Azurmendik eta Maitane Camposek jaso zuten saria eta 18 urtera artekoen mailan, berriz, lehen saria Ane Lopezek jaso zuen eta bigarrena Igor Bilbaori eman zioten. Biak Mogel Isasiko 14 urteko ikasleak dira eta, horrez gain, astean birritan Udal Dibujo Eskolara joaten dira marrazten ikastera.



- Zein toki aukeratu zenuten domekan koadroa margotzeko?

IGOR: Domeka goizean euria ziharduenez, aterperen bat aukeratu behar zen eta nik Arragueta kalean margotzen egoteko toki egokia aurkitu nuen. Han eman nuen goiza, parean zegoenari begiratuta koadroa margotzen.

ANE: Ibarkurutzeko iturri aldameneko etxea eta Estaziñoko kioskoa margotu nituen, aldamenean euritik babestuta zegoen txoko bat aurkitu eta bertan eman nuen goiza.

- Eta zein teknika erabili duzue?

BIEK: Aldez aurretik Dibujo Eskolan egur xafiak prestatu genituen, gero gainean koadroa margotzeko. Lehenik eta behin ikatz-ziriarekin marrazkia egin eta, ondoren, olioekin koadroa margotu genuen.

- Zaila da horrelako tarte laburrean koadroa margotzea?

BIEK: Naturaletik kopiatuta margotzea argazki bati begiratuta marraztea baino zailagoa izaten da beti. Besteak beste, neurriak eta proportzioak hartzeko argazki bati begiratzeko askoz errazagoa egiten zaigu denoi.

- Noiztik Dibujo Eskolan ikasten?

IGOR: Ni baino lehenago anaia ibili zen eta ni ere animatu nintzen orain dela zazpi urte,



gustatzen zitzaidan ala ez probatzeko. Margotzen ondo pasatzen dut.

ANE: Ni orain dela lau urte hasi nintzen, marraztea gustatu egiten zait eta, Igorren moduan, ondo pasatzen dut margotzen.

- Etorbizunean margotzen jarraitzea gustatuko litzaizueke?

IGOR: Ogibide moduan ez behintzat! Orain gustora dihardut, baina etorkizunean margotzen jarraitzen badut, beste barik denborapasa izaten segiduko du.

ANE: Gauza bera gertatzen zait, margotzea gustatu egiten zait, baina ez daukat honetaz bizimodua aurrera ateratzeko asmorik. Hala ere, zaletasuna daukat eta, klaseak lagata ere, etxean, denborapasa moduan margotzen jarraituko dudala pentsatzen dut.



● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Khôl

Estilistak

Aurreko asteko barixakuan aurkeztu eben San Andres jaixen inguruko programaziñua Esther Kareaga Kultura-Euskara zifnegotzixak eta Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" teknikarixak. Beste batzuetan lez, oinguan be herriko alkarte eta taldiak antolatutakueri esker, San Andres eguna aillegau bittartian jaixaren inguruan hoge bat jarduera egingo dira, tartian gaur hasiko dan asteburu bete-betiak hartuko dittuan guztiak.

Musikia eta jatekua eskutik oratuta datoz sanandresetan

Bakillauari eskindutako jardunaldixa

Eibarko Bakillauaren Kofradixiak, urtero lez, San Andres inguruan egingo dittu urteko ekitaldi nagusixak. Programiari berez aurreko asteburuan ekin zetsan, domeka gozian 30 bikotetik gora batu zittuan X. Eskolarteko Bakillau txapelketarekin. Epaimahaiko kidiak ikasliak preparau zittuen kazola guztien kalidade ona azpimarratu eben eta sarixa jasoko ebenak aukeratzia ez jakuen erreza egiñ. Edozelan be, 12-14 urte bittartekuen artian txapelkunak Jone Etxabe eta Maite Izquierdo izatia erabagi eben eta 14-16 urte bittartian, barriz, Harrison Santander eta Miguel de Sousa nagusitu ziran. Bikote bixak Santa Maria de la Providencia (Aldatze) ikastetxequak izatian, ikastetxe onenarentzako sarixa eskola horrek jaso eban.

Eta datorren domekan XX. Bartzar Nagusixa egingo dabe Bakillauaren Kofradixakuak, ekitaldirako Eibarrera etorriko diran beste kofradixetako lagunekin batera. Hórreri ongietorrixa Iruki sagardotegixan egingo detse eta, bertan hamarretakua egiñ eta gero,

11.30xak aldera Portaleraiño eruangor dittuan kalejiria hasiko dabe. Kultur etxeko aretuan oheretako kofrade barrixak izendatzeko ekitaldixa egingo dabe jarraixan. Aurten Ylenia Baglietto antzezliak, Jose Luis Irigoien argazkilarixak eta Asola Berri hiru txirilo alkarteko ordekarixak egingo dabe zin bakillauaren gaiñan. Izendapena egin eta gero, Goruntz abesbatzaren emanaldixarekin agurtuko dabe Portaleko ekitaldixa, baiña ez egunerako plana, nahi daben kofrade guztiak Iruki sagardotegixan alkarrekin bazkalduko dabe-eta.

Bixen bittartian, 11.00etatik aurrera udalak Alkorta Anaiak, Maimonako Virgen de la Estrella kooperatiba-alkartiak eta Krabelin jatekiak lagunduta antolatzen daben XXI. Bakillao txapelketia "San Andres Saria" egingo da Untzagan, karpa barruan. Izena emoteko epia amaituta, danera 33 bikotek emon dabe izena aurtengo txapelketan jarduteko eta, danendako suak daguazenez, hórretxek lehiatuko dira.



Kilometro bat txistorra pintxotan

Bixar zapatua XI. Txistorraren Eguna hartuko dau Untzagak, gozian 12.00etatik 15.00etara eta arratsaldian 18.30etatik 22.00etara. Eibarko Txirindularien Elkartek antolatutako jaixa eguardixan hasiko da, txapliguak bota eta Jose Miguel Callek eta Felix Elkoroiribek txotxa zabaltziarekin batera. Jarraixan, kilometro bat txistorra pintxuetan saltzen hasiko dira eta hórreri laguntzeko edaririk ez da faltako. Horrekin batera, hamabost urtetik beherakuendako sokamuturra eta pottokak egongo dira Toribio Etxebarria kalia, Elgoibarko dulzaineruak alaituta.

13.00ian txirindularixak antolatutako Valenciana Memorialeko IV. Argazki Lehiaketako irabazleri sarixak banatuko detsez. Aurten bilduma onena Pedro Moraren "A por ellos" izan da, bigarren onena Jose Antonio Palaciosen "Shura" eta argazki onena, barriz, Jose Luis Irigoien "Txo1". Jaixak 14.30xak arte segiduko dau eta, antolatzailiak bazkaltzeko hartuko daben atsedenaldira amaitzian, 18.00xetan hasiko dira arratsaldekuak: afaltzeko ordura arte disko-festa egongo da Arno DJren eskutik eta ordu erdi geruago txistorra eta edarixak saltzen hasiko dira. Eta jaixa amaitzeko, 21.30xetan 3.450 euro saritan banatzeko zozketia hasiko da.

Bixen bittartian, 17.30etatik aurrera Ustekabe fanfarrekuak Untzaga eta inguruak musikarekin alaitzen ibilliko dira kalejiran eta, oin dala egun batzuk aurreratu ebenez, "denboraldiko lehen kantu barrixa presentatzen ahaleginduko dira".



Ylenia Baglietto, Asola-Berri eta Jose Luis Irigoien izendauko dittue kofrade domekako ekitaldiran, Bakillauaren Kofradixako XX. edizifuan.

Pintxuak eta dastaketia Kultun

27 tabernak emon dabe izena Arrate Kultur Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Udalaren eta herriko tabernarixen laguntasunarekin antolatutako Eibarko X. Pintxo Lehiaketan. Atzo eta gaur euro bat eta bi tar-teko prezian edozeinek jateko moduan egongo dira lehiaketarako asmatu dittuen pintxuak. Epaimahaiko kidiak danak banan banan probau eta gero gaur bertan emongo dabe aditzera zeintzuk diran irabazliak. Sarixak, barriz, San Andres egunian, beste lehiaketetako irabazliekin batera jasoko dittue.

Horrekin batera, Gastronomía Azaruan programia biribiltzeko, datorren asteko egunian, 19.00-etan hasitta hitzaldi-dastaketia egingo dabe Kultun, txakoliña eta arabar Errioxako ardaa probatzeko. Mikel Garaizabal enologuak eta Oskar Trebiño sukaldarixak gidatuko daben saian par-



Mikel Garaizabal enologuak txakoliñarekin eta arabar Errioxako ardaurekin jardungo dau.

te hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau (zuzenian buleguan, astelehenetik eguenera 17.00etatik 19.00etara, 943202299 telefonora deittuta edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzitta).



Mateo Guilabert eta Mireia Alonso, Margari Olañetarekin irratsaio batian.

Omenaldixa maridaje jardunaldixak agurtzeko

Azaroko barixaku guztietan ardaa eta ehiza ezkontzeko afari berezixak emon dittue Arrateko Krabeliñen eta aurten hamar urte bete dittuen maridaje jardunaldixeri agur esateko, are berezixagua izango dan afarixa antolatu dabe San Andres bezperarako:

Mateo Guilabert kazetari ezagunari omenaldixa egitteko afarixa izango da eta, bertan batuko diran guztien berotasunarekin batera, Eibarko Udalaren grabadore-bolia jasoko dau Guilabertek.

Bertsuak eta kontzertuak gaztetzeko sanandresetan

Jaixak Herrixak Herrixandakok San Andres jaixak ospatzeko programia preparau dabe. Bezperan (azaruaren 29xan) 19.00-etan trikipoteua hasiko dabe (Untzagatik abiatuta) eta 21.30xetan bertso afarixa hasiko da gaztetxian, Unai Gaztelumendi, Maddi Sarasua eta Oihana Bartra bertsolarixekin. 23.30xetan, barriz, han bertan kontzertua emongo dau Sardeska taldiak. Eta San Andres egunian, bezperan lez, 19.00etan Untzagan trikipoteuarekin hasiko dabe jaixa eta gabian Iheskide eta Eutsi taldiak kontzertua emongo dabe gaztetxian.

SAN ANDRESAK '13 Eibarren

Azaroak 29 Oatrala

19:00 Trikipoteua untzagatik
21:30 Bertso afarixa Gaztelumendi, Unai gaztelumendi, Maddi Sarasua, Oihana Bartra

23:30 Kontzertua Gaztelumendi, **SARDESKA**

Azaroak 30 Larunbata

19:00 Trikipoteua Untzagatik
23:30 Kontzertuak Untzagan, **Iheskide**, **EUTSI**

Opera Divertimento eta Sostoa, Verdi kantatzen

San Andres egunian emanaldi berezixa hartuko dau Coliseuak 20.30xetatik aurrera: Opera Divertimento taldiak, Sostoa abesbatzarekin batera "Gala Verdi" musikari haundixaren omenezko kontzertua emongo dabe, Giuseppe Verdi jaixo zala 200 urte betetzian hori ospatzeko preparau daben emanaldixan.

...eta kitto!-ren bertso jaialdixa

eta kitto!
Euskara Elkarteak

"EZ DA KASUALTATEA"
San Andres Bertso Jaialdia

Ainhoa Agirreazaldegia, Xuse Alberdi

Abenduaren 1ean **DOMBEA** arratsaldeko 18.00etan musikariek

Onintza Enbeita, Alaia Martin

gai-jartzaileen Amaia Agirre

SARRERAK SALGAI
Depor Sagar-Bitza 5 euro Kultur

Abenduaren lian (domekia) egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtero antolatzen daben San Andres bertso-jaialdixa. Portaleko areto nagusixak "Ez da kasualitatea" izenburuko saia hartuko dau 18.30xetatik aurrera: Ainhoa Agirreazaldegia, Xuse Alberdi, Onintza Enbeita eta Alaia Martin bertsolarixak Amaia Agirre gai-jartzailliaren aginduetara jardungo dabe musikiak lagunduta. Aurretik, 18.00xetan bertso-paper lehiaketako sarixak banatuko detsez aurtengo irabazlieri. Jaialdirako sarrerak 5 eurotan dagoz salgai Sagar Bitza, Kultu eta Depor tabernetan.

Santa Zezilia ospatzeko kalejira eta kontzertuak

Aurtengo kalendarixuan bat egin dabe Santa Zezilia musikuen babesliaren jaixak eta San Andres aurreko asteburuak eta, horregaittik, musika emanaldi berezixak girotuko dittue barixaku, zapatu eta domekia. Halanda be, batzuk aurretik ospatu dabe jaixa. Lehenak Juan Bautista Musika Eskolakuak izan ziran: eguazten arratsaldian Portaletik Untzagara kalejiran jua ziran eta, jarraixan, udaletxeko arkupietan kanta batzuk eskindu zittuen.

Eibarko Kantuzaleak Santa Zezilia ospatzeko gaur 19.30xetan kalejiran urtengo dira, tabernarik taberna kantuan jarduteko: Batzokixan hasiko dira eta Zazpi, Lanus, Kultu eta Buenos Aires tabernetatik pasau eta gero, Deporren amaittuko dabe. Eta Sostoa abesbatzak be gaur kalia kantauta ospatuko dau jaixa. Amaitzian, 20.30xak aldera Gabonetako otarraren zozketia egingo dabe.



Musika Eskolakuak eguaztenian ospatu eben Santa Zezilia. Eurixa egitten ebanez, kalejira barik zuzenian Untzagako karpaxa jua ziran. SILBIA HERNANDEZ

Cielito Musika Bandak, bestalde, zapatu gaberdiran serenatia eginda eta domekan 12.30xetan Coliseo antzokixan kontzertua emonda ospatuko dau eta Usartza txistulari taldekuak, barriz, domekan 11.00etan hasiko dabe Santa Zezilia kalejiria.



Dios Salve a la Reina taldia Astelena frontoian

Zapatuan Dios Salve a la Reina, Queen taldiaren abestixak estilismua goitikk behera zainduta eskintzen dittuan taldiak kontzertua emongo dau Astelena frontoian, Udalak, Club Lambrettak eta Jai Productions enprexiak alkarlanian antolautu. Azken urtiotan egindakuaren bidetik, aruten be San Andres jaixen in-

guruan kontzertu berezixa antolatu nahi izan dabe eta bixarko ikuskizunari esker Freddy Mercury atzera be taula gaiñian zuzenian ikusteko aukeria egongoda, hil zala 22 urte beteko dan egunaren bezperan. Emanaldixa 23.00etan hasiko da, baiña atiak ordubete lehenago, 22.00etan zabalduko dittue.

Gabonetako OTARRA

2.000€ GABONETAKO OTARRA

1€

SALMENTA LEKUAK

- Arriaundi
- Bolintxo
- Depor taberna
- Ego Gain taberna
- El Corte Ingles
- ...eta kitto!
- Echetto - Urkizu
- Guridi taberna
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Kultu taberna
- La Golosina
- Maria Ospitxal
- Mugika harategia
- Ogi Berri - Urkizu
- Otegi harategia
- Udal Euskaltegia
- Untzaga prentsa
- Valenciaga
- Zubi-Gain taberna

OTARREKO PRODUKTUAK

- 40"ko 'OKI' telebista
- 'Misa' ezkur-urdaiazpikoa
- Solomo trufatua
- 'Don Bernardo Oro' gaztasia
- Salamankako ezkur-txorizoa
- Salamankako ezkur-saltxitxoia
- Ahate 'Delicas' foie-a
- 'Martiko' Confit ahate-izterra
- 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak
- Ahate jamoia
- 'Julian Martin' askotariko iberikoa
- 'Vasco Navarra' ardi gazta
- 'Sierra Monesterio' ezkur-jamoi zorroak
- Micuit 'Rougie' Gourmet
- 'Dos Cafeteras' gozokiak
- 185 gramoko Chatka lata
- Pikillo piper saltsa. 278 ml
- 'El Barco' txokolata
- 'El Barco' txokolata zuria
- Madari oso ardolan
- '1880' txokolata-almendra turroia
- 'La Higuera' piku bonboia
- 'Gorrotategi' teiak
- 'C. Gourmet' turroi gogorra
- 'C. Gourmet' turroi biguna
- 'C. Gourmet' trufa-turroia
- 'Soles de Gredas' hojaldretxoak
- 'Gyulian' itsas fruituak
- 'Cascajares' esne-bildots hanka
- Gin Tonic-erako espezia estutxea
- Champagne 'Bruno Paillard'
- Champagne 'Rosse Ruinart'
- Champagne 'Moet Chandon' estutxea
- Eskaziako 'Chivas Regal' whisky-a
- 'Matusalem' rona. 23 botila.
- 'Plymouth' Ginebra
- 'Qtonic' 4 tonikako Paka
- 'Conde Osborne' Coignaca
- 'Level' Vodka
- 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza
- 'Albarino Martin Codax' ardo zuria
- 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria
- 'Gourmet Blancos D. O.' zainzuriak
- 'D. O. Gourmet Frasco' piperrak
- 'D. O. Cathedral Frasco' alkatzofak
- 'Thes D origin Le Palais' estutxea
- Jamaikako kafea
- 'Elfos' trufa zuri olioa
- 'Elfos' trufa beltz olioa
- 'Gourmandises' kakaok
- 'L Himalayen' gatz larrosa
- 2 'Ibardin' confit
- 2 'Lafitte' confit

BARIXAKUAN 19.00-21.00 *Urkizun*

ZAPATUAN 12.00-13.30 *T. Etxebarrian*

ZAPATUAN 19.30-21.00 *T. Etxebarrian*



GREMIOEN GIDA

ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota Ateak - Tarimak
guztietako lanak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

943 530 356 **electricidad**
688 674 242 **alberto**
INSTALAZIOAK ETA
instalaciones y mantenimiento
MANTENIMENDUA
WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM
dasilvaalberto@hotmail.es

GURIA
ELEKTRIZITATEA
Muntaiak eta
proiektu elektrikoak
Matsaria 2
7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
barra 677 51 24 62
943 20 06 97

Tel. 610 532 922
THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak

ERAKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
E.I.T.
ERAKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajtoflina.com tlf. 943 20 12 50
AJT Zihurtasuna S.L.P.
Toribio Etxebarria, 4 behe A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

CAMILO ALVAREZ IGELTSEKITZA

OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSEKITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltsekitza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Fontanería Jardines

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA Ari-
eta faxa: 943 203 903 kitxaneko Zubian

PINTURAK

DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Bihar Barinagan amaituko da Euskadiko hiru-txirlo txapelketa

San Migueleko Angel Ibarluzeak bi txirloko aldea kentzen dizkie Aso-la-Berriko Bittor Astigarragari eta Lasturreko Joseba Lazkanori azken jardunaldiaren faltan. Tiraldi hori bihar jokatu da Markinako Barinagan, 17.00etatik aurrera. Talde-

kako sailkapenean, Asola-Berri B doa lider eta Eibarko bolatokiko Astigarraga da onena beteranoe-tan; emakumezkoetan Olaitz Rodriguez 3.a da, Aitziber Olaizola (San Miguel) eta Amaia Kortaren (Iruzubieta) atzetik.

Ruibal saskibaloia taldeak ihes egin du jaitsiera postuetatik

Oiarso sailkapeneko azkenari Erreterian 70-75 irabazita, eibartarrek aurrerapausu esanguratsua eman dute sailkapenean eta jaitsierako postuak baztertzea lortu dute. Ez zen partidu erraza izan eta azken laurdenean asmatutako jaurtiketa libreei esker erdietsi zuten garaipena Ruibalekoek: saskiratze-ei begira, Will Polanco eta Azurmendi izan ziren gehien asmatu zutenak (21 puntu bakoitzak), Anderson Polancorekin batera (16 puntu).



3. maila probintzian jokatu duen Katu Kalek ez zuen zorte bera izan eta 56-45 galdu zuen Zarautz Sharks-ekin kostaldeko herrian jokatuako neurketan. Hurrengo jardunaldian Cafes Aitona C-ren kantxa bisitatu dute.

Somos Eibar Eskubaloia arrasatearrak baino gehiago izan zen

Ipuruan jokatuako multzoko bi lehenengo ar-teko lehia, Fernando Fernandez eibartarren entrenatzaileak asmatu egin zuen lehen zatiko 20. minutuan sakatutako teklarekin eta, orduetik aurrera, Xabi Lukek Arrasatekoen goleatzaile onenari egindako defentsari esker, Somos Eibarrekoek nagusitasuna erakutsi zuten. Garaipen horrekin, eibartarrek tarte zabaltzen dute jarraitzaileekiko; euretako baten kantxan, Zaragozako Dominicose-nan, jokatu dute eibartarrek asteburuan.



Waterpolistak lehen postuaren borrokan

Kadete eta infantil mailako taldeek asteburuan lortutako garaipenekin, lidergoaren bila lehiatzen dihardutenen artean jarraitzen dute. Urbat-Urkotronikeko talde nagusiak ez zuen zorte bera izan eta, jokalar asko minduta zegoenez, bederatzi lagunekin bakarrik agertu zen Santoñaren igerilekuan. Orain arte minutu asko izan ez dituztenek erakutsi ahal izan zuten, baina kantabriarrak gehiago izan ziren (13-4).



Durango Kaskor harrapatu du foball zaletuaren lidergoan

Bizkaitarrek 3-0 irabazi zioten Areto Tabernari Kaskorrek Txoko Tabernarekin hiru berdintzen zuen bitartean. Baqueren hiru golak ez ziren nahikoa izan Txoko garaitzeko. Emaitza horiekin, 23na punturekin berdinduta daude sailkapeneko goigoian Kaskor eta Durango eta, lau puntura, jarraitzen dizkie Esmorgak. Sailkapeneko atzealdean geratu dira Mujika Iturgintza (5 puntu), Caserio Taberna (3) eta Areto Taberna (1).



Garro eta Olabe Kruzeta Memorialean. LEIRE ITURBE

Bi eibartar hamar onenen artean Gipuzkoako xake txapelketan

Klub Deportiboko David Perez 8.a izan zen eta Julen Garro 9.a probintziako txapelketa nagusian. Horrez gain, Perezek I. mailari dagokion bigarren saria eskuratu zuen. Eta hirugarren mailako txapelketan, Jose Antonio Garridok 6. postuan amaitu zuen, maila igotzeko postuetatik hurbil, eta Igor Zenigaonaindiak ere hor parte hartu zuen. Klub Deportiboaren egoitzan egingo da etzi, bestalde, Gipuzkoako Xake Federazioaren batzar nagusia.

Eibar Foball Taldearen "Eibar Munduan" ekimena

2015an Eibar FT-ren 75. urteurrena dela-eta, "Eibar munduan" izeneko ekimena antolatu dute bai bazkide, akzio-dun edota beste edonorentzat. Helburua da argazki euskarrian Eibar K.E.rekin zerikusia duten motiboak biltzea, baita pertsonaia famatuen presentzia duten argazkiak lortzea klubarekin duten erlazioaren motiboak edozein izanda ere. Toki famatuak izatea baloratuko da, hala nola hirie-

tako monumentuak, munduko toki nabarmenenak, futbol zelaiak, Eibar FT-rekin zerikusia duten tokiak. Inguru geografikoan kokatuta dauden irudi adierazgarriez gain, pertsonaia ospetsuekin lortutako irudiek bere tarteak izango dute, beti ere, Eibar FT-ren simboloa agertzen den bitartean.

Baldintza horiek betetzen dituzten argazkiak 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidali beharko dira, jpg formatuan, Ei-

bar K.E.ren web orrira igo daitezten. Argazkiarekin batera, argazkian agertzen den tokiaren deskribapena atxikitu beharko da. Argazkian agertu beharko diren Eibar FT-rekin lotura duten motiboak, batez ere kamisetak, banderinak, bufandak eta horrelakoak izan beharko dira. 2013ko uztailetik 2015eko abenduaren 31ra arte ateratako argazkiak bidali daitezke: interes berezikoak direla uste bada, epe horretan baino lehen-

go ateratako argazkiak ere bali dezakete.

2016ko urtarrilean jakinaraziko da zein izan den argazkirik nabarmena. Egoera hori baloratzeke, herri-bozketa eta klubaren urteurrenarekin lotura duen komisio baten sistema mixtoa egingo da, eta originalitatea, argazkia lortzeko zailtasuna, argazkia ateratzen den tokiaren garrantzia, argazkian azaltzen den pertsonaiaren garrantzia, pertsonaia horrek Eibar FT-ren kamiseta e.a. jantzita eramatea... izango dira irizpide garrantzitsuenak. Bost sari banatuko dira eta, horien artean, irabazleak nahiago duena hautatzeko aukera izango du; ondoren bigarrenak, eta horrela jarraian. Sariak honakoak dira: Eibar FT-ren kamiseta ofiziala, taldeko jokalariek sinatuta; Eibar FT-ren ligako partidu bat ikusteko palkorako bi sarrera; Eibar FT-ren ligako partidu baterako tribunako bi sarrera; Ipuruako instalazioetatik bisita gidatua; eta Eibar FT-ren 75. Urteurreneko kamiseta oroigarria.

Hegaleko eskuma aukeratuko dute asteen

Aurreko asteen ezkerreko erdilariak aukeratu ondoren, aste honetan aurrelariak hautatzeko botoak jasotzen hasiko dira 1940-2015@sdeibar.com helbidean. Aste honetako hautagaiak,

hegaleko eskumakoa aukeratzeko, honakoak dira: Carmelo Basaras, Mikel Beistegi, Juan Carlos Gomez de Segura "Pajarito", Pizo Gomez, Jon Cortina eta Manuel Lanzarote, sei guztira.



Liderrarekin domekan 17.00etan

Etzi Nuevo Colombinon jokatuko du Garitanoren taldeak Huelvako Recreativo liderraren aurka. Castillari Ipuruan 6-0 irabazi eta gero, talde bien arteko alde bost puntukoa da



ziurtagiriaren elkartea

baieuskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak



 /baieuskarariziurtagiria

 @baieuskarari

 www.baisarean.org

Euskal Herriko Itzulia apirilaren 10ean eta 11n izango da gurean

Urte erdia falta denean txirrindularitza proba hori egiteko, World Tour maila goreneko artean dagoen lasterketak menua prest du 2014rako. Apirilaren 7an hasiko da edizio berria eta 12an amaitu, etapetako helmugak Ordizian, Urdaxen, Gasteizen, Eibarren eta Markina-Xemeinen kokatuta. Aurreko urteetan lez, laugarren etapa klasikoa bihurtu den Arraten amaituko da eta bosgarrena Untzagatik hasiko



Infantil mailako taldea: Elena Sodupe, Elene Varela, Malen Txurruka, Teresa Miguel eta Nahia Arguiz.

30 talde gimnasia erritmikako San Andres torneoa

Zapatuan Ipuruan jokaturako XV. San Andres torneoa 30 taldek hartu zuten parte, 15 klub ordezkazten. Tania Nagornaiak eta Susana Prietok zuzentzen duten taldeak zilarrezko domina eskuratu zuen, bai I. mailan eta baita infantiletan ere. Nagusienak Sakonetako bizkaitarren atzetik sailkatu ziren (lan bikaina egin zuten lehenengo pase-

an, akats txikiekin bigarrenen) eta gazteenak Tolosaren atzetik; azken hauek hiru aro eta bi zinta erabili zituzten euren saioan, gaurtik aurrera Guadalajaran jokoan dagoen Espainiako txapelketan defendatuko duten muntaia aurkeztuta. Torneoa amaitzeko, eskoletako gimnasten ikuskizuna eskaini zuen Miriam Merino entrenatzaileak.

Harrobiko jokalariek Euskadiko foball selekzioarekin

Irati Lazkano Lurraldeko taldearen foballariak 16 urtetik azpikoekin Euskadiko selekzioarekin jokatu zuen martitzenean Zestonan, eta hurrengo egunean Euskadiko selekzioarekin ere izan ziren Luis Belio Euskal Ligako kadete mailakoa (16 urtetik beherako Realaren aurka Zubietan) eta Urko Aitor Garcia eta Joseba Urrestarazu, azken hauek 18 urtetik beherakoekin selekzioarekin Realaren aurka.

Finalerako txartela jokoan izango da Astelenan

Irujo eta Oinatz Bengoetxearen arteko finalerdia Katedralean jokaturako abenduaren 1ean, oraindik osatu gabe dagoen karteldegian: asteburu honetan jokatzekoa zen partidua astebete atzeratu da. Bezperan baina, San Andres egunean, jaialdi bikaina prestatu dute Aspekoe: horrela, jaialdia hasteko, Retegi Bik eta Pascualek Aritz Lasari eta Rezustari egingo diete aurre; jarraian, partidua nagusian, Titin III.a eta Merino II.a errioxarrek Jaunarena eta Zabaleta nafarrak izango dituzte aurrez-aurre; eta, amaitzeko, Apezetxea-Larrinaga eta Mendizabal III.a-Peñagarikano bikoteek neurtuko dituzte indarrak.



Bera Bera gehiago izan zen errugbian

Donostiarrak nagusi izan ziren Unben jokaturako norgehiagokan, eta Eibar Hierros Anetxeokok amore eman behar izan zuten (13-33). Pegamo Bera Berakoek partidu guztiak irabazi zituzte orain arte eta sendo jarraitzen dute lidergoan: nagusitasuna arlo fisikoan erakutsi zuten batez ere. Neskek partidu ona jokatu zuten, baina hala ere Amaia Telleriak zuzentzen dituenak 17-29 galdu zuten Hernanirekin Irungo Plaiaundin. Eta 16 urtetik eta 14tik beherako mutilen talde biek ere galdu egin zuten asteburuan, jubenil mailakoek moduan.



Aitor Hernandez top 15 izan da Belgikan

Ermuko txirrindularia Sven Nys munduko txapeldunak irabazi zituen bi probetan izan zen eta top 15 eta top 20 lortu zituen. Hasletako Sari Handian 18. postuan amaitu zuen Specialized-Garmar taldeko ziklokrosariak, irabazlearengandik minutu eta 50 segundora. Gaveren jokaturako lasterketan bezperako postua hobetu zuen, hamalagarren sailkatzeko. Bietan ere Espainiako estatutik joandako onena izan zen Aitor Hernandez.

Armagiñak, talde berria Erregionalean

Sanjuanetan txosnan jasotako laguntzarekin eta, "pare bat bilera egin ondoren", animatu ziren talde berria osatzera. Horrela kontatzen digute emandako urratsa Armagiñak foball taldeko Iurgi Zubizarreta taldeko kapitainak, Josu Iturbe jokalaria eta Mikel Garma zuzendaritzako partaideak. Orain arte Eibartarrak taldearen parte ziren, baina euren kabuz jarraitzea erabaki zuten eta talde berriari "nortasuna emateko" Armagiñak Jotake izena ipini diote. 20tik gora lagun dira taldean, "21etik 26 urtera artekoak" eta helburua ere ezarri diote euren buruari: "Preferente mailara igotzea gustatuko litzaiguke". Iaz, Eibartarrak-en barruan, Kopako finalerdietara iritsi ziren. Aurtentzen, baina, igoera fasean sartzeko aukerak dituzte, azken domekan Aretxabaleta liderrarekin berdindu eta gero. Saillkapeneko bigarren postuan dago Armagiñak eta, liderrarekin batera, partidurik ez du galdu oraindik. Multzo bereko Urkiri 2-1 nagusitu zaie eta bana berdindu dute Eibartarrak-ekin.

Taldea osatzeko jaso duten laguntza guztia eskertu nahi dute Armagiñak taldeko ordezkariak: "Dorotik eta Hirurok eskaintzen diguten babesarekin batera, kartelak prestatzeko-eta jo dugun toki guztietan bikain erantzun digute. Gainera, bazkide kopuru polita osatu dugu dagoeneko. Denboraldi



Garma, Iturbe eta Zubizarreta taldearen elastikoarekin.

amaierarako asmoa dugu Untzagan umeendako partidua antolatzeko, karpa batzuk ipinita...". Bigarren talde bat osatzeko ideia ere badago euren asmoetan: "Ez hori bakarrik; neskena ere osatu dezakegu, proposamenik jasoz gero". Zaletasuna sortu dute inguruan eta hori igarri dute Unben jokatzeko partiduetan: "Gero eta jende gehiagok jarraitzen digu, baita animoak eman ere. Txarrena da, etorri berriak izanda, ordutegi kaxkarrenetan tokatzen zaigula entrenatzea, batzuetan gaueko 22.00-etan". Zelan ez, jokalaria berriak hartzeko prest daude. Hori bai: jo eta ke, aurrera egin.



berriak

JUDO

Kalamua Klubeko Nekane Muguruza judokak Bucaresten jokatu den jiu-jitsuko junior mailako munduko txapelketan hartu du parte. San Andres egunean, bestalde, judoko San Andres torneoan jokatu da Ipurua kiroldegian.

PILOTA

Domeka goizean, 11.15etan, bi pilota partidu jokatu dira Ipuruan. Klub Deportiboko lehin onenen arteko neurketaren ondoren, Klub Arteko Torneoko norgehiagoka izango da: Velasco-Urionabarrenetxea Eibarko bikoteak Zumaia kiroldegiarekin egingo diete aurre.

ARETO FOBALLA

Concepto Egile Debabarrena areto foballeko talde nagusiak Sala Quinto liderra hartuko du domekan Elgoibarko Olaizaga kiroldegian, eguerdiko 12.30etan. Partidua irabaziz gero, Conceptokoek aurkaria harrapatuko du saillkapenean.

IGERILEKUA ITXITA

Parte-hartze eta errendimenduko ligako bigarren jardunaldia bertan jokatu behar dela-eta, bihar arratsaldean igerileku estalia itxita egongo da 16.00etatik 20.00etara.

Saratsuegi, 5
943-257605

APARKATZEKO
arazorik gabe

Restaurante
ba Jara



Menu bereziak
ospakizun eta urtebetetze
merendoretarako

Oilasko erre osoa,
patata frijituarekin (10 €)

Eguneko menua
(asteleheneetik ostiralera)

Plater konbinatuak

Kazuelitak

Razioak

SANANDRESETARAKO MENUA

- Paletilla iberikoa
 - Gula eta mendreska entsalada epela pikilloen ozpin-olioarekin
 - Otarraixkak plantxan
 - Bakailaoa bizkaitar erara (RAZIO ERDI)
 - Limoi-sorbetea txakolinarekin
 - Entrekota patata eta pikilloeki (RAZIO ERDI)
 - Postrea
 - Kafea, ura, krintza edo albariñoa
- 30 € + BEZ (%10)**





IÑAKI SERRANO (idazlea)

“Estilo intimistagoa erabili dut ‘Mali sutan’ liburuan”

“Munduko bost kontinenteetan zehar bidaiatu ondoren, batez ere bakarrik, ezagututako hainbat lekutan bapatean gerrak sortzen dira eta zeure buruari galdetzen diozu bertan ezagututako jendea nola moldatzen ariko den”.

Horrela aurkeztu zuen bere lana Iñaki Serranok Yemenen atentatuan hil zen Mikel Esseryren izena daraman V. Bidaia Kontakizun Lehiaketan parte hartzeko. Lehen saria irabazi du eibartarrak, “Mali sutan” lanarekin.

- Zelan animatu zinen horrelako lehiaketa batean parte hartzera?

Aurretik, aspaldi bada ere, ipuinak idatzitakoa naiz eta, baita, sari txikiak eskuratutakoa ere. Antolatzaileek liburua kaleratzen dute urtero, lehiaketan parte hartu duten kontakizunen selekzioarekin eta, behin izako hori irakurrita eta, hanka apurtuta lau-bost hilabete geldirik egon behar nintzenez, ariketa moduan hartu nuen kontakizuna idaztea.

- Nondik-nora heldu diozu narrazioari egindako testuan?

Parte hartzeko bidaia-kontakizuna egin behar duzu eta, helburu moduan, bidaietan sortutako solidaritatea edo elkarlana hartu behar zen objektu edo helburu moduan. Nire kontakizuneko protagonistak gerra ostean Malira bueltatzen diren hiru lagun dira. Bertan egonda naizenez, nire esperientziatik abiatuta, lagun bakoitzak bueltatzeko dituen zergatietan zentratu naiz batez ere.

- Noiz izan zinen, bada, Malin?

Orain dela sei urte. Afrikako herrialde pobreenetakoa da. Lehenengo egunetan gogorra egin zitzaidan han egotea, baina azkenekoetan ez nuen alde egin nahi. Bizitza izan nituen irudi magikoek, goiz batean andrak putzura joatean ikusi nituen modukoak, bertan izandako uneei zukua ateratzen lagundu zidaten.

- Zenbat egun eman zenituen bertan? Bueltatzeko asmorik?

Gutxi izan ziren, 12 egun besterik ez. Bueltatzeko asmorik ere ez dut, hemendik gutxira behintzat. Bidaiatzeko osatu dezakezun zerrenda luzea baita, Sasoi batean gehiago bidaiatzen nuen.

- Saria irabaztea ezustea izan da zuretzat?

Orain arteko edizioetan gaztelaraz eta ingelesez idatzitako lanek irabazi izan dute saria eta euskaraz egindako lehena da garai iretzen. Euskaraz idatzitakoen artean onena izan daitekeen sententzia izanda ere, nazioarteko kazetariak tartean izanda, zaila da pentsatzea sari nagusia irabaziko duzula.

- Bide horretatik jarraitzeko asmorik bai?

Urtero saiatzen naiz zeozer idazten, aspalditik: ariketa literario moduan hartzen dut urteroko hori, beti ere denboraren arabera. Normalean estilo arin eta graziosoan idaztea gustatzen zait, pasadizo barregarri sufrituak kontatzen -Internet aurreko Interail bati buruz gazte literaturako vintage liburu ganberroa argitaratuta daukat-, baina oraingoan gaiak estilo intimistagoa eskatzen zuten.



Saritutakoena talde-argazkia. LEIRE ITURBE

Laburmetraia onenak sarituta

Zapatu arratsaldean eman ziztuzten Plano Corto elkarteak antolatutako XIV. Eibarko Asier Errasti Laburmetraia jaialdiko irabazleek izenak, Portalean egindako sari-banaketa ekitaldian bertan. Jabier Agirresarobe Saria Jostexu Linaresen “Mi ojo derecho” lanari eman dio epaimahaia eta bigarrena, berriz, Curro Rodriguezen “No hair no paranoia” lanari. Euskerazko laburmetraia onenari saria Kote Camachok jaso zuen, “Elkartea” lanagatik. Eta animazioan Juanma Suarez saritu zuten, “Alfred & Ana” laburmetragatik. Aurtengo edizioan 200 bat laburmetraia jaso dituzte lehiaketako arduradunek eta epaimahaiko kideek askoren kalitate handia azpimarratu dute.



Marimotots Eibarren egindako hainbat lagunekin. LEIRE ITURBE

Pailazoez bizipoza ekartzen

Aurreko barixakuan eta zapatuan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Eibarren egon ziren “Bizipoza” ikuskizun berria taularatzan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Urtero lez, Hezkuntza Esparruan egindako lau emanaldietatik pozarren irten ziren ume eta gurasoak. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ikuskizunera joandako guztiei, “eta bereziki ikuskizunaren antolaketan lagundu duten Hezkuntza Esparrukoei eta sarrerak saltzen ibili diren e&m argazkidendari, Tio Palancas eta Gozoki den-dei, baita ere aparkalekua erabiltzen laga zuen Firestoneri”.

Koktel-ikastaroa ...eta kitto!-n

Datorren abenduaren 17rako (martitzena), koktel-ikastaroa antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Gorka Gonzalezen eskutik hainbat koktel egiten ikasiko dute parte-hartzaileek, alkoholdunak eta alkoholik gabeak. Talde mugatua izango da (10-12 lagunentzako) eta izen-ematea abenduaren 2tik 13ra arte egingo da, ...eta kitto!-ra deituz (943200918) edo bertara agertuz. Ikastaroa arratsaldeko 19.00etan izango da ...eta kitto!-ren bulegoan. Sarrerak 5 euro balio du (...eta kitto!-ko bazkideentzat 4'50 euro).

Mosaiko erraldoia Euskararen Egunerako

Abenduaren 3an Euskararen Eguna dela-eta, aurten euskarari aurpegi ipini nahi diote herriko euskalgintzako ordezkariak (Udalak, AEK eta udal euskaltegiak, ... eta kitto! Euskara Elkartek eta herrian euskalgintzan diharduten gainontzeko elkarteek) eta, horretarako, egun horretan udaletxeko patioan argazkia atera, euskararekin lotutako gogoetak idatzi eta, nahi izanez



Herriko euskalgintzako ordezkariak abenduaren 3rako programazioa aurkeztu zuten. SILBIA HERNANDEZ

gero, megafoniatik irakurtzera animatu nahi dituzte herritar guztiak. Astelehenean prentsaurrekoan azaldu zuten, egunean zehar ateratzen diren argazkiekin mosaiko itxurako murala osatuko dute eta, horregatik, eibartar guztiak bertatik pasatu eta argazkia ateratzeko animatu nahi dute, "zenbat eta jende gehiago izanu, hobeto". Horrekin batera, euskararen inguruko mezu laburra idazteko aukera ere eskainiko zaio jendeari: "Mezuak anonimoak izango dira eta Twitter eta Facebook bitartez zabaltzen joango gara. Egune-

an zehar udaletxeko balkoian megafonia martxan egongo da eta ekitaldian parte hartzen dutenek beste norbaitek idatzitakoa mikrofotik irakurtzeko aukera izango dute, kalean dabilen jendeak entzun dezan".

Abenduaren 3an egun osoan egongo da argazkia ateratzeko aukera, goizeko 09.00ak aldera hasi eta 19.00ak arte. Beste urte batzuetan lez, goizean batez ere ikasleak gerturatzeko espero dute antolatzaileek, baina edozein modutan ekitaldia herritar guztientzat zabalik egongo da egun osoan.

Exfiar domekan zabalduko da

Domekan zabalduko dute Portaleko erakusketa aretoan abenduaren 1era arte ikusgai izango den Exfiar 2013 XLIV. Seilu erakusketa. Arrate filatelia elkarteak urtero San Andres jaien inguruan antolatzen duen seilu erakusketa aurten 44. edizioa beteko du eta oraingoan gure herrian egindako lehen abiazio probei eskeini dizkiete seilu-erakusketa eta zigilu-marka. Erakusketa ordutegi berezian zabalduko dute: astelehenean barixakura 18.00etatik 20.00etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara (azaroaren 30ean itxita egongo da).

EXPO. FILA. XLIV SEILU ERAKUSKETA

24 Noviembre 2013


EIBAR



CENTENARIO EXHIBICIÓN AEREA



laburrak



KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaur gauerako afaria eta kontzertua antolatu dute gaztetxean. 21.00tan hasiko den afari arina musika eta bideoklipuz lagunduko dute eta Karrika tabernak antolatutako kontzertua 22.00etan hasiko da, "orain arte tabernan jotzeko aukerarik izan ez duten lagunekin". Kartel berean Kokein, Norman eta PAM taldeak batu dituzte tabernari azken agurra egiteko jaialdian.



HOWDY KOSKORREN

Gaur gauerditik aurrera Howdy taldeak kontzertua emango du Koskor tabernan. Taldeak country-folk estiloko musika egiten du eta gaurko kontzertuan genero horretako abesti lasikoak eskainiko dituzte. Sarrera librea eta doan izango da.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



Egañaren hitzaldi jendetsua

"Zuetako nork pentsatzen du euskara ondo doala? Erdipurdi doala? Eta gaizki doala?". Galdera horiekin ekin zion Andoni Egañak, martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkartearen, ikus-entzule ugari bildu zuen hitzaldiari. Bertan bildutako gehienen ustez erdipurdi doa euskara. Egañaren esanetan "orain arte gauza asko egin dira, eta ondo gaiñera, baina hainbatetan ez dugu asmatu". Ezagutza eta erabileraren artean gaur egun oraindik ere dagoen tartea kezkatzen du

Egaña: "Euskara inoiz baino jende gehiagok daki, baina erabilerara ez da ezagutzaren parekoa. Zergatik? Inork ez du hizkuntza bat erabiltzen ez bada beharrezkoa eta trebe sentitzen ez bada. Euskaraz dakienak zergatik ez du euskara erabiltzen? Alde batetik premiarik ez duelako eta bestetik trebetasunik ez duelako. Dakienak erabilgarri senti dezala, hori da lortu behar duguna". Eremu formaletan euskara asko indartu dela aipatu zuen Egañak, baina, "erabile-



Andoni Egañaren hitzaldiak interesa piztu zuen eibartarren artean.
SILBIA HERNANDEZ

ra informalean asko galdu du aldi berean; gazteek ez dakite euskaraz mehatxatzen, adierazkortasuna falta zaie...".

Euskarak aurrera egiteko gaokoak ere eman zituen Andonik: "Bi faktore hartu behar dira kontutan: hizkuntzaren baitako faktoreak (gramatika, lexikoa...) eta hizkuntzaz kanpokoak (hizkuntzarekiko sentimenduak). Biak ondo elkarrekin asmatzen badugu orduan egingo du euskarak aurrera".

Arlo guztietan eragiten jarraitu beharrezko garrantzia azpimarratu zuen Egañak: "Familia,

eskola, kalea, aisia eta hedabideak. Ezinbesteko alorrik dira eragiten jarraitzeko. Familiak aldatzen ari dira baina giltzarri dira euskararen transmisioan. Eskoletan izugarriko lana egin da, aisia ere bai, baina hori adibidez, gehiago egin behar da, lehentasunezko eragin-eremua da gazte asko hartzen dituelako; eta hedabideei dagokienez, salbuespenak salbuespen, erabiltzen duten euskara berdintzailea da, beti denari berdintzailea ohitzen gaituzte. Hor ere erabaki garrantzitsuak hartu beharko dira".

Azken edizioako irudia.
LEIRE ITURBE



Bertso-paper lehiaketako irabazleak aukeratuta

Aste honetan eman dituzte ezagutzera XIX. San Andres bertso-paper lehiaketako irabazleak. Nagusien mailan Jon Martin (Olartzun) saritu dute eta berak jasoko du sari nagusia (300 euro eta txapela). Bigarren saria Julian Albisturantzat izan da. Eta 16 urtetik beherako mailan, lehen saria (liburua eta txapela) Paul Agirrentzat izan da eta bigarrena Jule Gisasolarentzat (liburua eta plaka). Irabazleek saria abenduaren 1ean jasoko dute, 18.00etan Portalean, San Andres bertso jaialdia hasi baino ordu lehenago bertso sarituak abestuko dituzte.

Txotxongilo jaialdia abian

Titirijai XXXI. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia bihar abiatuko da, 17.00etan Coliseoan eskainiko duten "Helena y el caballo de madera" antzezlanarekin. Bartzelonako Eugenio Navaroren eskutik ailegatuko den lana ikusteko sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai antzokiaren leihatilan bertan. Eta astelehenean, 15.00etan "Tears by the river" Keniako Krystal Puppet Theatre taldearen txotxongiloen ikuskizuna hartuko du Hezkuntza Esparruak (sarrera doan da).



Hezkuntza Esparruan izango den Keniako Krystal Puppet Theatre taldearen txotxongiloen ikuskizuna doan eskainiko dute.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, BERNART, gaur zazpi urte betetzen dozuzelako. Guztion partez.



Zorionak, ALEJANDRO Marino Awaz, hillaren 20xan urtiak egin zenduaz-en-eta. Etxeko guztien partez.



Egunero irribarre bat ateratzen deskun MARKELi, zorionak!! 2 urtetxo! Zaku bete patxo, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, INTZA, bixar zazpi urte beteko dozuzelako. Etxeko guztien partez.



Zorionak, NEREA Antxia, zure 11. urtebetetzian. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AITOR, domekan hamar urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat, txapeldun, etxeko guztien partez.



Zorionak, UNAI, domekan bi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, amamen partez.



Zorionak, OIER, domekan urtetxua egingo dozulako. Anaixa Beñat, guraso eta amamaren partez.



Zorionak, UNAI, etzi urte bi egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NOAH, haraiñegun sei urte egin zenduaz-en-eta. Gaur printzesaz beteko da etxia! Patxo mordua danon partez.



Zorionak, ANGELA, astelehenian bost urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat, printzesa, etxekuen partez.



Zorionak, IRATI eta MADDI! 9 eta 11 urte bete dozuez daganeko... Muxu mordua bixontzat, potxolak!



Zorionak, JARE eta MADDI, etxeko guztien partez. Besarkada haundi bat eta muxu piratak.

hildakoak

- Natividad Uriarte Zallo. 89 urte. 2013-XI-13.
- Valentin Mendez Iglesias. 81 urte. 2013-XI-13.
- Trinidad Cobo Rozadilla. 86 urte. 2013-XI-20.

jaiotakoak

- Beñat Zubizarreta De Miguel. 2013-XI-6.
- June Cercadillo Rodrigo. 2013-XI-11.
- Josu Garro Larrañaga. 2013-XI-12.
- Aner De la Fuente Segundo. 2013-XI-12.
- Daniela Kaperotxipi Orbea. 2013-XI-17.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
23an: 19.45, 22.30
24an: 17.00, 20.00
25ean: 20.30

"El quinto poder"
 Zuzendaria: Bill Condon



(2 ARETOAN)
23an: 19.45, 22.30
24an: 17.00, 20.00
25ean: 20.30

"Kon-Tiki"
 Zuzendaria: Joachim Ranning



(ANTZOKIAN)
23an: 19.30, 22.30
24an: 20.00
25ean: 20.30

"Los juegos del hambre"
 Zuzendaria: Francis Lawrence



(ANTZOKIAN)
24an: 17.00

"Turbo" 3D
 Zuzendaria: David Soren



BARIXAKUA 22

INDIANOKUA

16.30. Disparate eguna. Indianokua gaztelekuan.

IPUIN-KONTALARIA

18.00. "Saharako istorioak". Eneritz Artetxe. Umeen liburutegian.

SANTA ZEZILIA

19.30. Eibarko Kantuzaleen kalejira: Batzokian hasita, Zazpi, Lanus, Kultu, Buenos Aires eta Depor.

19.30. Sostoa abesbatza kalejiran. 20.30etan otarraren zozketa.

KONTZERTUA

21.00. Afari musikala.
22.00. Kokein, PAM eta Norman taldeak. Mojitoak gau osoan. Gaztetxean.

BERTSOAK

23.00. Ander Zulaika, Maddi Gallastegi, Izar Mendiguren eta Aimar Goenaga. Gai-jartzailea: Ion Martinez. Akaran.

KONTZERTUA

00.00. Howdy taldea. Koskor tabernan.

ZAPATUA 23

TXISTORRA EGUNA

12.00. Hasierako txotxa. Txistorra eta edariak.
12.15. Sokamuturra eta poniak. T. Etxebarrian. Elgoibarko dultzaineroak.
13.00. Valenciagako IV. Argazki Lehiaketako sari-banaketa.
15.00. Bazkaltzeko eternaldia.

18.00. Disko festa, Arno Djarekin.
17.30. Ustekaberen kale-animazioa.
21.30. Zozketa. Karpan.

INDIANOKUA

17.00. Pictureka mahai-jolasa. Indianokua gaztelekuan.

TXOTXONGILOAK

17.00. Titirijai 2013. "Helena y el caballo de madera". Eugenio Navarro. 5 euro. Coliseoan.

LEHIAKETA

17.30. Gabonetako postalena, umeentzat. El Corte Inglesean.

KONTZERTUA

23.00. Dios Salve a la Reina taldea (ateak 22.00etan zabalduko dira). Astelena frontoian.

SANTA ZEZILIA

00.00. Santa Zezilia serenata, Cielito Musika Bandarekin (euria bada, udaletzeko arkupeetan).

DOMEKA 24

BAKILLAU KOFRADIXIA

10.30. Eibarko Bakillauaren Kofradixaren batzarra. Kanpotik etorritako kodradeei ongi etorria eta hamarretakoa, lruki sagardotegian.
11.30. Kalejira, Portalera. Ohorezko kofradeak izendatzea eta Goruntz abesbatzaren emanaldia.

BAKAILAO TXAPELKETA

11.00. XXI. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria". Untzagan (karpan).

SANTA ZEZILIA

11.00. Usartza txistulari taldearen kalejira.

INDIANOKUA

17.00. Pictureka mahai-jolasa / Play-Wii. Indianokua gaztelekuan

ASTELEHENA 25

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA

10.00. Karpak indarkeria matxistaren aurka.
13.00. Elkarretaratzea: "Indarkeria matxistaren aurrean, jabetu!". Untzaga.
18.00. Eibar Beldur Barik Jaialdia: "La cenicienta que no queria comer perdices" (Nunila Lopez eta Myriam Cameros), Pailaztana Klown Taldea. Lehiaketara eibartarrek aurkeztutako bideoak eta Eibar mailako sari banaketa. Portalean.

TXOTXONGILOAK

17.00. Titirijai 2013. "Tears by the river" (Krystal Puppet Theatre, Kenia). Hezkuntza Esparruan.

MARTITZENA 26

IKASTEN

10.00. "Debarrenako flora eta fauna" hitzaldia. Iñaki Irizar. Armeria Eskola.

IKASTEN

17.00 eta 18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

TAILERRA

18.00. Genero indarkeriari buruz: Ana Bella fundazioa. Portalean.

EGUAZTENA 27

IKASTEN

10.11. Mendi-ibilaldia: Basauri-Bilbo. Trena Estaziñoan hartzeko ordua (Ardantzan, 10.12etan).

HARTU&EMAN AZOKA

18.30. Elkartrukerako azoka. Gaztetxean.

IKASTAROA

19.00. "Mailchimp: Newsletterrak guztion eskura". Cioka Creativa. Doan (izen-ematea 943208420 telefonon ekingune@ekingune.com helbidean). Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.30. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 28

IKASTEN

10.00. "Picasso" hitzaldia. Ricardo Aldama. Armeria Eskolan.

ODOL-EMAILEAK

18.30. Odol-emaileentzat odola ateratzea. Toribio Etxebarriako anbulategian.

HITZALDI-DASTAKETA

19.00. "Txakolina eta arabar Errioxako ardoa". Mikel Garaizabal eta Oskar Trebiño. Topalekuan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Nekatuta ibiliko zara eta ez duzu gauza askorik egingo, indarra faltako zaizu-eta egunerokoan. Ahalegindu ondo lo egiten.

TAURUS

Faltan botako duzu pertsona berezi hori. Azken aldan gutxitan izan zara berarekin eta, egon zarenean, ez duzu aprobetxatu.

GEMINI

Zuk ikusi zer duzun nahiago. Zortekoa zu! Izan ere, aukeratzeko beta duzu. Besteek ere eskertuko lukete zure lekuan egotea.

CANCER

Lotsaria pasatuko duzu familiako batek egindakoagatik, baina badakizu nolakoa den. Ez egin jaramonik besteek diotenari.

LEO

Zer iruditzen daikiri batekin hondartzan botata egotea? Ametsa zuretzat? Egin maleta eta, badakizu, bete amets hori!

VIRGO

Ez duzu ezagutzen, baina inpresio handia egingo dizu dakizun horrek kalean egingo dizun keinuak. Zer esan nahi du horrek?

LIBRA

Kasuak eta kasuak daude: ezberdintzen saiatu. Burugogorregia zara askotan eta ez dituzu begiak zabalitzen. Begiratu ondo.

SCORPIUS

Suaren pareko pasio momentuak biziko dituzu asteburuan. Aspaldian gordetako amodio sutsu hori berpiztuko da zugan.

SAGITTARIUS

Ez zenuen esandakoa ondo ulertu eta ederra egin duzu! Batari eta besteari komentatu, eta ez da egiazko kontua.

CAPRICORNIUS


Datorren astean goizegi esnatuko zara ia beti; izan ere, gauza bat izango duzu buruari bueltaka. Ez edan hainbeste kafe.

AQUARIUS

Askotan pentsatu duzu ikasitakoak ez dizula ezertarako balio izan egunerokoan. Konturatuko zara hori ez dela horrela.

PISCIS

Defentsa onena erasoa dela diote. Ez da hala? Hasi ondo pentsatzen nola erasotu, partidua galtzen diharduzu-eta.



erakusketak

✓ Azaroaren 30era arte

SAHARARI buruzko gida bibliografikoa eta **JOSE LUIS IRIGOIENEN** argazki erakusketa. Juan San Martin liburutegian.

JUAN MANUEL LUCENAREN "Panoramikak" argazkiak. *El Ambigú kafetegian.*

KATALUNIAKO AFTDAO (Berga) elkarteko argazkiak. *Klub Deportiboan.*

JOSE IGNACIO DE CASTROREN argazkiak. *Portalea tabernan.*

✓ 24tik abenduaren 1era arte

EXFIBAR 2013 XLIV. Seilu erakusketa (ordutegi berezia). *Portalean.*

ikastaroak

✓ Autoenplegu ikastaroa

- Non eta noiz: azaroaren 25etik abenduaren 3ra arte, 15.30etatik 19.50etara. Armeria Eskolan.

Izen-ematea eta informazioa: 943 20 32 44 / 688 691 388 telefonoetan eta urratsbat@armeriaeskola.com (Belen Guinea).

✓ Xaboi naturalak egiteko oinarrizkoa

- Non eta noiz: abenduak 11 (eguztzena), 17.00etatik 20.00etara Portalean.

Izen-ematea eta informazioa: 648 977 587.

✓ Kotel ikastaroa

- Non eta noiz: abenduak 17 (martitzena), 19.00etan, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

Izen-ematea: abenduaren 2tik 13ra, ...eta kitto!-n (943200918 telefonoan).

Prezioa: 5 euro (bazkideentzat, 4'5 euro).

farmaziak

✓ barixakua 22

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ zapatua 23

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ domeka 24

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ astelehena 25

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ martitzena 26

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ eguztzena 27

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ eguena 28

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✓ barixakua 29

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

lehiaketak

✓ Eibartar Ekintzaileak Gure Kaleetan

Pertsonaia: Bittor Sarasketa

Informazioa: www.eibar.com / www.eibarko-euskara.com eta liburutegiko blogetan.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

8	6	2		3	
3		1	7		
5			4	6	2
	6	8			6
				1	5
2					
6		3	9		8
		3		1	7
	9		8	3	5

SUDOKUA

3	5	1	4	9	2	8	6	7
8	4	6	5	7	1	2	9	3
7	9	2	8	6	3	5	4	1
5	1	8	9	3	6	7	2	4
2	7	3	1	5	4	6	8	9
9	6	4	2	8	7	3	1	5
4	3	7	6	2	9	1	5	8
1	2	5	3	4	8	9	7	6
6	8	9	7	1	5	4	3	2

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Presa dut pisua saltzeko Errekatxu kalean. 2 logelekoa. Kalefakzioa. Dena jantzita. Tel. 659-757522.
- Etxe berria salgai, Zumaiatik 5 km. ra. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 200.000 euro. Tel. 620-099120.
- Hormigoizko pisua erosiko nuke Eibarren. 60.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 620-099120.
- Presa dut pisua saltzeko Amañan, ganbararekin. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio onean. Tel. 671-439939.
- Pisua salgai Amañan, elizaren ondoran. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-092588.
- Pisua salgai San Kristobal kalean. 3 logela, sukaldea eta komuna. 76 m². Tel. 626-806839.

1.2. Errentan

- Babes ofizialeko pisua alokagai Aso-la-igartza kalean. Atikoa, garajearekin. Prezioa inkilinoaren soldataren arabera. Interesatuak Etxebiden izena emanda egon behar dute. Tel. 617-926344. Igor.
- Pisukidea behar da bi lagunekin etxea partekatzeko. Bidebarrieta kalean. Tel. 687-046386.
- Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 628-257956.
- Logela-apartamentua alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 653-727067.
- 3 logelatako pisua hartuko nuke errentan. Gehienez 500 euro ordainduta. Tel. 632-337083.
- 2 logela alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 669-179522.
- Logela hartuko nuke alokagai, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 660-833346.
- Pisua behar da Eibarren. 2-3 logelekoa. Tel. 652-532589.
- Pisua alokagai Legarre-Gain kalean. 3 logela, egongela eta komuna. Jantzita. Eguzkitsua. Tel. 678-956839.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Bigarren eskuo Nissan Cabstar kamioneta (kaxa irekiko) salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 605-738476.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Txomon. Marraduna. Tel. 658-710898.
- Lokala salga Eibarko erdialdean. 25 m². Tel. 671-258740.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

3.2. Errentan

- Eстетika zentroa transferitzen da Ermuan ezin delako atenditu. Jardunean eta bezero finkoekin. Tel. 642-868417.
- Garajea alokagai Asua-errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 616-959625.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Informeak. Tel. 664-574504 eta 943-204140.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 628-425421. Santusa.
- Mutila eskaintzen da tabernan zein jangelan kamarero jarduteko. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da garajeak, pegorak edo trasteroak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 943-257815.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko. Tel. 666-008974.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta orduka. Tel. 677-521374.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-866535.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi zabalak. Tel. 636-841158.
- Gizona eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta altzariak garraiatzeko. Tel. 660-213652.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 618-814064.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta gomendioak. Tel. 608-820954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-798284.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- EGAdun andereño eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko. Bi urteko esperientzia haurreskolan. Tel. 635-201975.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-030863.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-430198.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-372936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-337083.
- Mutila eskaintzen da gauzez gizon nagusiak zaintzeko. Tel. 632-210608.
- Neska eskaintzen da plantxa egiteko. Tel. 632-950327.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formazioa eta esperientziarekin) eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-179522.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-385949.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 698-567680.
- Eibarko neska eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-258740.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 633-781038.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 634-005760.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 680-526228.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-359554.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia), peoi moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 698-536267.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 697-702158.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-930915.
- Monitorreak behar dira igeriketako klaseak emateko. Tel. 688-610620.
- Kiromasajista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegi baterako. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea behar da LH1-eko ikasle batentzat. Astelehen eta eguaztenetan, 17.00etatik 18.00etara. Tel. 661-377537.

5.2. Eskaintzak

- Ingalaterratik etorritako neska ingelesezko klaseak ematen ditu. Maila guztiak. Ahozkoa lantzeko batez ere. Tel. 663-586212. Caitilin.
- DBH eta Batxilergoko ikasleentzako klaseak ematen dira. Tel. 669-954099.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, LP-ak eta single-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Lehen jaunartzea egiteko traje marinerora salgai. Beige kolorea, 14 neurrikoa. 75 euro. Tel. 630-686469.
- Sofa marroia salgai. 3 plazakoa. Cheslong -2'70-, somier -1,35-, relax laminak -1'35x1,90- eta koltxoia. Tel. 645-007388.
- Ohe artikulatua salgai. Koltxoia, azaleko ezkatzen aurkako lamina eta garbiarekin. la berria. Tel. 666-746661.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Pailazoetan lagatako koadrodun aterkin gorria eta 5-6 neurriko jertse beltza ...eta kitto-ln daude.

6.4. Bestelakoak

- Asteburuetan belaontzian nabigatzeko taldea osatzen ari gara. Tel. 605-751127.



ASTELEHENETIK BARIKAKURA

06.00etatik 22.00etara

ZAPATU, DOMEKA

ETA JAI EGUNETAN

08.00etatik 22.00etara

**Gaueko ZERBITZU
AUTOMATIKOA:**

gasolina norberak bota
eta txartelarekin

ordainduta, **MERKEAGO**



DENDA (ikatz, izotza,
txakur-janaria, edariak,
sasoiko frutak...)

**Automobil-garbitegiak
Aspiragailua / Lantzak
Erroberak puztu,
presioa neurtu...**

*Nekazaritzarako
gasolioa eta kalefakziorako
bonifikatua ETXERAINO
ERAMATEN DIZUGU*



Otaola etorbidea, 13 - bis

Tfnoak. 943 20 73 74 / 94 671 02 77



**GASOLEOEN
BANAKETA**

vinos Solera Eibarresa

www.vinosconsolera.com
OnLine Denda



Ardo, Garagardo eta Likore Banaketa

Gabonetako Eskaintza Berezia!

Etxez - Etxeko Zerbitzua

Jarraitu



6 Botila
Anna Codorniu Vintage Erosita



Eraman doan 2 botila
Aukeratu bi hauen artean

Viña Pomal Crianza
Selecc. Centenario



Raimat Chardonnay



49,99 euro

6 Botila
Viña Pomal Crianza
Selecc. Centenario Erosita



Eraman doan botila 1
Anna Blanc de Blancs



36,99 euro

6 Botila
Campillo Reserva Erosita



Bodega ezagutzeko
gonbidapena
eta kata 2 Lagunentzat



82,11 euro

6 Botila
Viña Real Reserva Erosita



Eraman doan
3 ardo kopa



47,92 euro

KONTSULTA EZAZU GURE WEB-EAN :: www.vinosconsolera.com
GUSTATZEN ZAIKIZUN ARDOEN ESKAINTZAK ETA
ZEURE ETXEAN JASOKO DITUZU PREZIORIK ONENEAN



Abenduko Zapatu Goizetan hurbildu gure Ardo eta Likore OUTLET-era,
Goizeko 10:00etatik - 14:00ak arte

Helbidea: Ibur - Erreka Poligonoa Z/G - 20600 Eibar

Tel.: 943 201353 / 943 206614 - E-maila: info@vinosconsolera.com

*Prezioak BEZ barne